Lehendakaria / Presidente
Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal
Mª Aranzazu Arana Learte

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria
María Yeregui Hernández

**Resolución 9/2020 ebazpena**
Recurso 6/2020 errekurtsoa

KAPSCH TRAFFICCOM ARCE SISTEMAS SAU enpresak kontratazio-alorreko errekurtso berezia aurkeztu zuen honako kontratu honen agirien aurka: *"Gipuzkoako bidaiarien hiriarteko errepideko garraio zerbitzu erregularraren ustiaketarako, bidaiarientzako informaziorako eta baliozkotze eta salmentarako laguntza sistemaren proiektua idaztea, hornitzea, instalatzea, konfiguratzea, zerbitzuan jartzea, operatzea eta mantentzea kontratatzea"*. Errekurtso berezi horretan, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaurko egunean burututako saioan, gorago adierazi diren kideak bertan zirela, aho batez onartu du ondorengo erabakia.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por KAPSCH TRAFFICCOM ARCE SISTEMAS SAU contra los pliegos del contrato de *"Redacción de proyecto, suministro, instalación, configuración, puesta en servicio, operación y mantenimiento del sistema de ayuda a la explotación, de información al viajero y de validación y venta del servicio regular de transporte interurbano de viajeros por carretera de Gipuzkoa"*, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENA.-** 2020ko irailaren 14an Auzitegiko erregistroan aurkeztutako idazki bidez, KAPSCH TRAFFICCOM ARCE SISTEMAS SAU enpresak kontratazio-alorreko errekurtso berezia jarri zuen ebazpen honen hasieran adierazitako agirien aurka.

**BIGARRENA**.- Biharamunean Auzitegiak idazkia helarazi zion Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari, errekurtsoaren kopia atxikita zuena, espedientea eta errekurtsoaren inguruko txostena eskatuta. Hori guztia Auzitegiaren erregistroan sartu zen irailaren 21ean.

**HIRUGARRENA**.- Irailaren 23an, proposamenak aurkezteko epea amaitzen zen egunean, Auzitegiak Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentura jo zuen

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro del Tribunal el día 14 de septiembre de 2020, KAPSCH TRAFFICCOM ARCE SISTEMAS SAU interpuso recurso especial en materia de contratación contra los pliegos referidos en el encabezamiento de esta resolución.

**SEGUNDO**.- El día 16 el Tribunal dirigió oficio al Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio remitiéndole copia del recurso y reclamándole el expediente y el correspondiente informe acerca del recurso y de la medida cautelar interesada. Todo lo cual tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 21 de septiembre.

**TERCERO.-** El 23 de septiembre, fecha en la que finalizaba el plazo de presentación de proposiciones, el Tribunal se dirigió al Departamento de Movilidad y Ordenación del

proposamenak aurkeztu zituzten lizitatzaileen nortasunari buruzko informazioa eskatzeko, haiei errekurtsoa helarazi ahal izateko helburuz.

Eskaera horri erantzunez, departamentuak adierazi zuen lizitatzaile hauek aurkeztu dituztela eskaintzak:

- INDRA SISTEMAS SA.
- REVENGA-GERTEK-DATIK ABEE.

**LAUGARRENA**.- Kontuan hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 56.3 artikuluan xedatutakoa, Auzitegiak errekurtsoaren berri eman zien lizitatzaileei, eta bost egun balioduneko epea eman zien alegazioak aurkezteko.

Urriaren 5ean, REVENGA-GERTEK-DATIK ABEEak idazki bat aurkeztu zuen. Idazki horretan alegatzen du, lehenik, errekurtsogileak legitimazioa galdu duela errekurtsoa jartzeko, ez duelako eskaintzarik aurkeztu eta, beraz, edonolako interesa galdu duelako lizitazio prozesuan; bigarrenik, auziaren mamiari dagokionez, errekurtsoa ezesteko eskatzen du.

**BOSGARRENA**.- Auzitegiak, 2020ko irailaren 24ko ebazpenaren bidez, ezetsi egin zuen errekurtsogileak eskatutako lizitazio prozedura eteteko kautelazko neurria.

Territorio en solicitud de información sobre la identidad de los licitadores que las hubieran presentado, a efectos de darles traslado del recurso.

En respuesta al requerimiento el departamento informó que han presentado ofertas los siguientes licitadores:

- INDRA SISTEMAS SA
- UTE REVENGA-GERTEK-DATIK

**CUARTO.-** De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 56.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, el Tribunal dio traslado del recurso a los licitadores concediéndoles un plazo de cinco días hábiles para formular alegaciones.

El 5 de octubre UTE REVENGA-GERTEK-DATIK presentó escrito en el que alega, en primer lugar, que la recurrente ha perdido legitimación para interponer el recurso porque no ha presentado oferta y, por tanto, ha perdido cualquier interés en el proceso de licitación; y en cuanto al fondo del asunto, solicita la desestimación del recurso.

**QUINTO.-** Por resolución de 24 de septiembre de 2020 el Tribunal desestimó la medida cautelar de suspensión del procedimiento de licitación, solicitada por la recurrente.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**LEHENA.-** Errekurtsoa hornidura- eta zerbitzu-kontratu misto baten baldintza-agirien aurka jarri da. Kontratu horren balio zenbatetsia 34.026.767,30 eurokoa da.

Beraz, errekurritutako agiriaren aurka kontratazio-alorreko errekurtso berezia jar daiteke, hala xedatzen baita azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen (SPKL) 44. artikuluaren 1.a) eta 2.a) paragrafoetan.

Errekurtso horren berri izateko eskumena Auzitegi

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**PRIMERO.-** El recurso se interpone contra los pliegos de un contrato mixto de suministro y de servicios cuyo valor estimado asciende a 34.026.767,30 euros.

Por lo tanto, el pliego recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.a) del artículo 44 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP).

La competencia para conocer del recurso

honi dagokio, irailaren 28ko kontratazio-alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko 24/2010 Foru Dekretuaren 2.1 artikuluan esleitzen baitzaio.

corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**BIGARRENA**.- Errekurtsoa Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 50.1.b) artikuluan aurreikusten duen hamabost egun baliodunеko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartzen bada lizitazio iragarkia eta agiriak 2020ko abuztuaren 24an argitaratu zirela Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilean, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman.

**SEGUNDO**.- El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.b) LCSP, si se tiene en cuenta que el anuncio de licitación y los pliegos se publicaron en el perfil de contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa, alojado en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi, el día 24 de agosto de 2020.

**HIRUGARRENA**.- SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, errekurtsogileak legitimazioa du errekurtsoa jartzeko, nahiz eta eskaintzarik aurkeztu ez; izan ere, estatutu sozialetan eta errekurtsoa jartzeko idazkian jasotakoaren arabera, telekomunikazioen eta sistema zentralizatuen kudeaketaren sektoreko enpresa bat da, eta uste du ustez diskriminatzailea den baldintza-agirietako klausula batek kalte egiten diela haren interes legitimoei.

**TERCERO**.- De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, la recurrente, aunque no haya presentado oferta, está legitimada para interponer el recurso, pues, según se recoge en los estatutos sociales unidos al escrito de interposición, se trata de una empresa del sector de las telecomunicaciones y gestión de sistemas centralizados, que considera que sus intereses legítimos se ven perjudicados por una cláusula de los pliegos supuestamente discriminatoria.

**LAUGARRENA**.- 2020ko uztailaren 28ko erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak kontratazio-espedientea eta kontratuaren administrazio-klausulen eta preskripzio teknikoen agiriak onetsi zituen, eta, era berean, lizitazioa prozedura irekiaren bidez irekitzea xedatu zuen.

**CUARTO.-** Por acuerdo de 28 de julio de 2020 el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación y los pliegos de cláusulas administrativas y de prescripciones técnicas del contrato, y dispuso asimismo la apertura de la licitación por el procedimiento abierto.

Baldintza teknikoen agiriko 5. atalaren arabera, kontratua betetzeko egin beharreko lanen artean daude proiektua idaztea, gauzatzea, haren operazioa eta mantentze lanak, eta, azkenik, honako hauek Gipuzkoako Foru Aldundiari transferitzea:

A tenor del apartado 5 del pliego de prescripciones técnicas, los trabajos a realizar en cumplimiento del contrato incluyen la redacción del proyecto, su ejecución, la operación y el mantenimiento y finalmente la transferencia a la Diputación Foral de Gipuzkoa de:

- Balidazio- eta salmenta-sistema bat, egungoa ordezkatuko duena (MUGI eta Lurraldebus txartelak erabiliz) eta zabaldu egingo dena BARIK eta BAT txartelak onartzeko, EMV txartelen bidez

-un Sistema de Validación y Venta que sustituirá al actual (utilizando las tarjetas MUGI y Lurraldebus) y lo extenderá para aceptar las tarjetas BARIK y BAT, permitir el pago con

ordaintzea baimentzeko eta QR tituluak dituzten telefono mugikorrak erabiltzeko;

- Ustiapeneko laguntza sistema bat;

- Bideozaintzako sistema bat;

- Bidaiarientzako informazio-sistema bat, geltokietan dauden panelen, autobusaren barruko pantailen eta erabiltzaileentzako WiFi sarbidearen bidez;

- BackOffice sistemak eta sistema osagarriak;

hori guztia Gipuzkoako foru-lurraldean bidaiariarien errepidezko hiriarteko garraio-zerbitzu erregularretarako (Lurraldebus).

Kontratuaren ezaugarrien koadroko 4. atalean, sinatzen denetik bederatzi urteko exekuzio-epea ezartzen da, honela banatuta:

- 3 hilabete ingeniaritza-faserako eta proiektua idazteko.

- 9 hilabete, ezarpen- eta gauzatze-faserako (kontratatutako ekipoak eta sistemak instalatzea, konfiguratzea eta martxan jartzea).

- 8 urte ustiapen-faserako (sistemaren eragiketa eta mantentze integrala); epe hori gehienez ere 24 hilabetez luzatu ahal izango da.

Baldintza teknikoen agiriko 17.4 atalak, adjudikaziodunaren lan-ekipoei buruzkoak, bereizita aipatzen ditu, alde batetik, enpresa adjudikaziodunak lehenengo bi faseetan kontratuari atxiki beharko dizkion langileak (17.4.1 atala), eta, bestetik, Lurraldebuseko kontrol zentroko eta Contact Center-eko operazio-zerbitzuez arduratzen diren langileak (17.4.2 atala), zerrenda bat erantsita, eta adjudikaziodunak subrogatu beharko ditu proiektua ezarri eta operazio- eta mantentze-fasea hasi ondoren.

tarjetas EMV y utilizar teléfonos móviles con títulos QR;

-un Sistema de Ayuda a la Explotación;

-un Sistema de Videovigilancia;

-un Sistema de Información al Viajero por medio de paneles en paradas, de pantallas a bordo y de acceso WiFi para usuarios dentro del autobús;

-y diversos sistemas de BackOffice y sistemas auxiliares;

todo ello para los servicios regulares de transporte interurbano de viajeros por carretera (Lurraldebus) en el territorio foral de Gipuzkoa.

El apartado 4 del cuadro de características del contrato contempla un plazo de ejecución de nueve años a partir de la firma, distribuidos de la siguiente manera:

-3 meses para la fase de ingeniería y redacción del proyecto.

-9 meses para la fase de implantación y ejecución (instalación, configuración y puesta en marcha de los equipos y sistemas contratados).

-8 años para la fase de explotación (operación y mantenimiento integral del sistema), plazo este susceptible de prórroga por un máximo de 24 meses.

El apartado 17.4 del pliego de prescripciones técnicas, relativo a los equipos de trabajo del adjudicatario, se refiere por separado, de un lado, al personal que la empresa adjudicataria deberá adscribir al contrato en las dos primeras fases del mismo (apartado 17.4.1), y, de otro, al personal encargado de los servicios de operación del centro de control de Lurraldebus y del Contact Center (apartado 17.4.2), relacionado en listado anexo, que deberá ser subrogado por el adjudicatario una vez que se haya implementado el proyecto y se inicie la fase de operación y mantenimiento.

Bada, 17.4.1 apartatuak aurreikuspen hau jasotzen du:

Pues bien, el citado apartado 17.4.1 contiene una previsión del siguiente tenor:

*"Será necesario que el equipo de trabajo esté radicado en Gipuzkoa, al menos durante el 80% de la duración del proyecto, y obligatorio al 100% durante la implantación y puesta en marcha de los pilotos y de la puesta en producción de todo el equipamiento, así como durante al menos 1 mes en explotación (o más tiempo si Diputación Foral de Gipuzkoa lo estima conveniente, en función de los resultados de ese momento). Esta circunstancia, que deberá explicitarse en la oferta, será evaluada a la finalización de los trabajos en la recepción".*

**BOSGARRENA**.- KAPSCH TRAFFICCOM ARCE SISTEMAS SAUk kontratazio-alorreko errekurtso berezia jarri zuen, aurreikuspen hori bertan behera utz zedin eta kontratuaren xedearekiko diskriminatzaileak ez diren eta proportzionalak diren beste eskakizun eta irizpide batzuk ezar zitezen.

**QUINTO.-** KAPSCH TRAFFICCOM ARCE SISTEMAS SAU interpone el presente recurso especial en materia de contratación con la pretensión de que se anule dicha previsión y se sustituya por otros requisitos y criterios no discriminatorios y proporcionales al objeto del contrato.

Haren iritziz, lan jakin batzuk (kontratuaren ezaugarrien koadroko 14. atalean aipatutakoak) azpikontratatu ezin izateak enpresa adjudikaziodunari eskatuko lioke kontratuari atxikitako langile guztiak Gipuzkoara lekualdatzea, beren ezaugarriak direla-eta beste edozein lekutan urrutitik egin daitekeen lan bat egiteko.

En su opinión, el hecho de que no se puedan subcontratar determinados trabajos (los mencionados en el apartado 14 del cuadro de características del contrato) exigiría a la empresa adjudicataria desplazar a todo el personal adscrito al contrato a Gipuzkoa para ejecutar un trabajo que, por sus propias características, se puede realizar en remoto en cualquier otra localización.

Agiriak modu horretara ezartzeak, haren ustez, lan araudia hausten du, langile batzuk beste batzuen aurrean diskriminatzen baititu, haien zirkulazio-askatasuna mugatuz, eta ez dio jaramonik egiten osasun-agintarien gomendioari, hau da, bizi dugun osasun krisian telelanean jarduteko gomendioari.

Esta imposición de los pliegos constituye, a su juicio, una infracción de la normativa laboral, al discriminar a unos trabajadores frente a otros, limitando su libertad de circulación, y no atiende a la recomendación de las autoridades sanitarias para que en la crisis sanitaria en la que nos encontramos los trabajos se hagan en modo teletrabajo.

Nabarmentzen du baldintza hori kontratua gauzatu bitartean bete behar dela, hau da, bederatzi urtean, eta hori lizitaziora sartzeko muga bat dela Gipuzkoan kokatuta ez dauden enpresentzat, hala nola errekurtsogilearentzat, egoitza Bilbon baitu.

Insiste en que se trata de una exigencia que debe cumplirse durante toda la ejecución del contrato, esto es, nueve años, y supone una limitación de acceso a la licitación para aquellas empresas que no estén radicadas en Gipuzkoa, como es el caso de la recurrente, que tiene su sede en Bilbao.

SPKLren 76.3 eta 202.1 artikuluak urratutzat jotzen ditu, eta Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren apirilaren 25eko 453/2019 Ebazpena aipatzen du, guztiz aplikagarria irizten baitio kasu honetan.

Considera infringidos los artículos 76.3 y 202.1 LCSP, e invoca la Resolución 453/2019, de 25 de abril, del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales (TACRC), que considera plenamente aplicable al caso.

**SEIGARRENA**.- Hasteko, baztertu egingo dugu aipatu ebazpenean Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak hartutako erabakia gure kasura ekartzeko modukoa dela, aztertzen ari garenaren oso bestelakoa den kasu bati heltzen baitio. Agirietako klausula bat aurkaratzen zen bertan, zeinak, SPKLren 202.2 artikuluaren babesean, obra-kontratu bat egikaritzeko baldintza berezi gisa ezartzen baitzuen enpresa adjudikaziodunak honako betebehar hau betetzea: obrak egiteko behar diren langileen % 50, gutxienez, iraupen luzeko langabezia-egoeran dauden udalerriko pertsonen artean kontratatzea, jarduketaren xede den auzoan bizi direnei lehentasuna emanez.

**SEXTO.-** Empezaremos por descartar que la decisión adoptada por el TACRC en la resolución invocada sea trasladable a nuestro caso, pues en ella se aborda un supuesto muy diferente del que nos ocupa. Se impugnaba allí una cláusula de los pliegos que, al amparo del artículo 202.2 LCSP, establecía como condición especial de ejecución de un contrato de obras la obligación de la empresa adjudicataria de contratar al menos un 50% de los trabajadores necesarios para la ejecución de las obras de entre personas de la localidad en situación de desempleo de larga duración, con prioridad de los residentes en el barrio objeto de la actuación.

Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak klausula hori deuseztatu zuen, langileentzat argi eta garbi diskriminatzailea zela iritzita; izan ere, baztertu egiten du egoitza kontratua egiten den udalerritik kanpo edo Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan duten enplegu eskatzaileak kontratatzeko aukera. Gainera, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak uste du gehiegizkoa dela langile langabeak % 50ean kontratatzeko eskakizuna, ehuneko horren inolako justifikaziorik aurkeztu gabe.

El TACRC anuló la referida cláusula por considerarla claramente discriminatoria para los trabajadores, en la medida en que excluye la posibilidad de contratar a demandantes de empleo domiciliados en otros lugares distintos del municipio de prestación del contrato, o en otros Estados miembros de la Unión Europea. Además, el TACRC considera desproporcionada la exigencia de que se contrate a trabajadores desempleados en un porcentaje del 50%, sin que se aporte justificación alguna de ese porcentaje.

Ikus daitekeenez, deuseztatutako klausula sozialak ez du zerikusirik hemen aurkaratzen den baldintza teknikoen agiriaren aurreikuspenarekin.

Como puede verse, nada tiene que ver la cláusula social anulada en aquel caso con la previsión del pliego de prescripciones técnicas que aquí se impugna.

**ZAZPIGARRENA**.- Departamentuaren txostenean, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren apirilaren 17ko 406/2019 Ebazpena aipatzen da, zeina eman baitzen agirien eskakizun hau aurkaratzen zuen errekurtso batean: udal kontratatzailearen etxez etxeko telelaguntza-zerbitzua emango zuen Arreta Zentroak bere autonomia-erkidegoan egon behar izatearen eskakizuna.

**SÉPTIMO**.- En su informe el departamento invoca la Resolución 406/2019, de 17 de abril, del TACRC, dictada en un recurso en el que se impugnaba la exigencia de los pliegos de que el Centro de Atención desde el que se iba a prestar el servicio de teleasistencia domiciliaria del ayuntamiento contratante debía estar ubicado en su Comunidad Autónoma.

Ebazpen horren arabera, lurralde-sustraitzearen baldintzak diskriminatzaileak dira kaudimen-betekizun edo adjudikazio-irizpide gisa eratzen direnean; aitzitik, onartu egiten dira bitartekoak

Dicha resolución señala que son discriminatorias las condiciones de arraigo territorial cuando se configuran como requisitos de solvencia o como criterios de adjudicación, admitiéndose, por el

atxikitzeko konpromiso gisa edo gauzatze-baldintza gisa eskatzen direnean, betiere, kasu horretan, proportzionaltasun printzipioa errespetatzen badute eta kontratuaren xedearekin lotuta badaude.

Gure kasuan, ez gaude kaudimen-betekizun baten aurrean, ez eta adjudikazio-irizpide baten aurrean ere; aldiz, adjudikaziodunari preskripzio teknikoen agirian kontratua egikaritzeko ezarritako baldintza baten aurrean gaude, justifikatua eta proportzionatua dena, eta, beraz, inola ere ezin da diskriminatzailea izan.

Departamentuaren txostenak adierazten duen bezala, baldintza-agiriek ez dute eskatzen enpresa adjudikazioduna Gipuzkoan egotea, eta ez da baloratzen haren egoitza non dagoen. Ez da eskatzen enpresa lurraldean errotuta egotea. Kontratuaren aldi jakin batzuetan, eskatzen da proiektua idatzi eta ezartzeko ardura duen adjudikaziodunaren lantaldea Gipuzkoan egotea, eta eskakizun horrek ez die lizitazioan parte hartzeko inolako mugarik ezartzen Gipuzkoan kokatuta ez dauden enpresei.

Eskakizun hori arrazoizkoa da, kontratuaren tamaina eta konplexutasuna eta adjudikaziodunak kontratuaren lehenengo bi faseetan egin beharreko lanen izaera kontuan hartzen badira. Horiek baldintza teknikoen agiriko 16. atalean (ezarpen plana) zehaztuta daude, baldintza hauetan:

contrario, cuando se exigen como un compromiso de adscripción de medios o como condiciones de ejecución, siempre que, en este supuesto, respeten el principio de proporcionalidad y guarden relación con el objeto del contrato.

En nuestro caso no estamos en presencia de un requisito de solvencia ni de un criterio de adjudicación, sino de una condición de ejecución del contrato impuesta al adjudicatario en el pliego de prescripciones técnicas, que resulta justificada y proporcionada, y en modo alguno puede ser tachada de discriminatoria.

Como señala el informe del departamento, los pliegos no exigen que la empresa adjudicataria esté radicada en Gipuzkoa, ni tampoco se valora la ubicación de su sede. No se exige el arraigo territorial de la empresa. Lo que se exige es que durante determinados periodos del contrato el equipo de trabajo del adjudicatario dedicado a la redacción del proyecto y a su implantación esté radicado en Gipuzkoa. Y esta exigencia no supone ninguna limitación de acceso a la licitación para aquellas empresas no localizadas en Gipuzkoa.

La exigencia es razonable si se tiene en cuenta la envergadura y complejidad del contrato, y la naturaleza de las tareas a realizar por el adjudicatario en las dos primeras fases de su ejecución, que vienen especificadas en el apartado 16 (Plan de implantación) del pliego de prescripciones técnicas en los siguientes términos:

***<u>Fase de Ingeniería y Redacción del Proyecto</u>:***
*- Desarrollo de herramientas o metodología de Control y Gestión Integral del Proyecto.*
*- Replanteos:*
**Realizar la ingeniería de instalación (ubicación de equipos en Lurraldebus Gunea, CPD, operadores, paneles en paradas y autobuses).*
**Analizar todos los sistemas y elementos externos a integrar (Web, App, ATTG, GIS DGF, sistemas de venta anticipada, Zendesk y otros).*
*-Redacción del proyecto de ejecución de los trabajos, incluyendo entre otros aspectos:*
**Especificaciones funcionales de los sistemas.*
**Arquitectura funcional y física (global, Lurraldebus Gunea, sistemas en los operadores, sistemas embarcados, paneles e integración de sistemas externos).*
**Especificaciones funcionales detalladas de todos los elementos de la arquitectura.*
**Diseño de las aplicaciones de backoffice (CIT, Gestor de datos maestros, contrato programa, Datawarehouse y BI, y Gestor de incidencias y analítica SLA).*
**Especificación de la arquitectura de red y equipamiento de centro de control.*
**Definición de detalle de diseño de la red, especificaciones hardware de los servidores, sistema de almacenamiento, política de backups, planes de contingencia, ...*

**Replanteos del punto anterior.*
**Especificaciones hardware de todos los elementos de campo (autobuses y paradas).*
**Planos de instalación de los elementos.*
**Plan de implantación actualizado, indicando cómo y cuándo se van a desarrollar todas las actividades del proyecto hasta la puesta en servicio, teniendo en cuenta la necesidad de coexistencia con el sistema preexistente y la migración sin interrupción de la funcionalidad de validación y venta y con el mínimo impacto en el resto de funcionalidad.*
*-Redacción del proyecto de operación y mantenimiento.*

*Esta fase tendrá una duración aproximada de tres meses.*

***<u>Fase de Implantación y Ejecución del Proyecto:</u>***
*-Presentación de prototipos, realización de pruebas en laboratorio.*
*-Instalación y puesta en marcha del Sistema Central, incluidos los servicios de Desarrollo del Software.*
*-Preparación de la infraestructura (preinstalaciones en autobuses, instalación de los equipos informáticos, establecimiento de la red de comunicaciones, adaptaciones necesarias en Lurraldebus Gunea, centros de operadores, cocheras y paneles).*
*-Documentación y formación.*
*-Instalación y puesta en marcha de los Equipos de Campo.*
*-Pruebas en campo con piloto en una línea.*
*-Instalación y puesta en marcha del Sistema en los Operadores.*
*-Formación del personal de operación (operadores y Lurraldebus Gunea) y personal de DFG.*
*-Generación y entrega de la documentación requerida, y en todo caso, toda aquella solicitada por la Dirección de Proyecto.*
*-Pruebas globales del sistema.*
*-Operación del Sistema en Modo de Marcha Blanca por Operador.*
*-Asistencia in situ al personal de Lurraldebus Gunea y operadores.*

*Esta fase tendrá una duración aproximada de nueve meses.*

Ikus daitekeenez, lehen fasean beharrezkoa da presentzia fisikoa izatea datuak hartzeko, planoak egiteko eta zuinketak egiteko.

Como puede verse, en la primera fase es necesaria la presencia física para la toma de datos, elaboración de planos y realización de replanteos.

Ezarpen-faseari dagokionez, argigarria da kontratatzailearen profilean argitaratutako erantzuna, SPKLren 138.3 artikuluaren babesean interesdunek eskatutako argibideetako bati buruzkoa:

En cuanto a la fase de implantación, resulta ilustrativa la respuesta publicada en el perfil de contratante a una de las aclaraciones solicitadas por los interesados al amparo del artículo 138.3 LCSP:

*“Los autobuses en los que hay que realizar la instalación están operativos y deben seguir operativos durante la migración de los sistemas. Es posible que se requiera realizar alguna preinstalación con objeto de reducir los tiempos de migración.*
*Los trabajos de preinstalación se pueden extender al CPD, CCL (Lurraldebus Gunea) y/o CCO de cada uno de los operadores de Lurraldebus, en función del plan de migración que defina el ofertante, ubicados todos ellos en Gipuzkoa.*
*Hay que garantizar que toda la flota de Lurraldebus, 255 autobuses, realice todos los servicios correctamente. Tal como se recoge en el apartado 14.3.1 del Pliego de Prescripciones Técnicas, "todas las instalaciones e implantaciones del equipamiento embarcado han de realizarse de forma que no interrumpan el servicio. Para ello se deberá trabajar, tanto en horario diurno como en nocturno y fines de semana, coordinados siempre con el operador afectado".*
*La flota de Lurraldebus está repartida actualmente en nueve operadores, los cuales pueden tener más de una cochera, todas ellas ubicadas en Gipuzkoa.*
*Las cocheras están ubicadas en diferentes puntos geográficos del Territorio Histórico de Gipuzkoa, como son actualmente Hernani, Zubieta (Donostia), Donostia (Martutene), Arrasate, Hondarribia, Oiartzun, Azkoitia, Zumaia, Elgoibar, Olaberria y Tolosa, y donde el licitador deberá llevar a cabo todos los trabajos de desmontaje y montaje del nuevo equipamiento, tanto embarcado como de cocheras”.*

Kontratuaren barruan sartzen dira, halaber, egungo informazio pantailak desmuntatzeko lanak eta Gipuzkoako bazter guztietan dauden geralekuetan berriak muntatzeko lanak.

También forman parte del contrato los trabajos de desmontaje de las actuales pantallas informativas y el montaje de las nuevas en las paradas ubicadas a lo largo y ancho de la geografía guipuzcoana.

Laburbilduz, ezin da ondorioztatu preskripzio teknikoen agiriko eskakizun hori justifikaziorik gabeko oztopoa denik kontratua lehiara irekitzeko, eta ez du urratzen enpresaburuek adjudikazio-prozeduran berdintasun baldintzetan parte hartzea; beraz, SPKLren 126.1 artikuluan xedatutakoa errespetatzen da.

En definitiva, no puede concluirse que esta exigencia del pliego de prescripciones técnicas constituya un obstáculo injustificado a la apertura del contrato a la competencia, ni vulnere el acceso de los empresarios al procedimiento de adjudicación en condiciones de igualdad, por lo que resulta respetuosa con lo dispuesto en el artículo 126.1 LCSP.

**ZORTZIGARRENA.-** Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileari isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLk 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

**OCTAVO.-** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDA**

Ezestea KAPSCH TRAFFICCOM ARCE SISTEMAS SAU enpresak aurkeztutako kontratazio-alorreko errekurtso berezia.

Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por KAPSCH TRAFFICCOM ARCE SISTEMAS SAU.

SPKLren 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2020ko azaroaren 17a / San Sebastián, 17 de noviembre de 2020.**